



ERROMATIK SANTIAGORA, XACOBEO URTEAN

Jose Mari Otermin amezketarra eta Anjel Mari Oiartzabal alegiarra irailaren 15ean irten ziren Italiako hiriburutik > 5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2010-09-21

VIII. URTEA 2.079. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



177 egoiliarrentzako tokia du Uzturre Asistentzi Gune berriak; atzokoan egin zuten aurkezpen ekitaldia komunikabideen aurrean. I. TERRADILLOS

BERTAN DIRA LEHEN EGOILIARRAK

TOLOSA Abian da Uzturre Asistentzi Gune berria; San Kosme eta San Damian zentroko «bizilagunak» joan ziren atzo 2



Anoetako plazan bildu eta hamaiketako egin zuten. S. GOMEZ

Bizikleta Bira biharko autorik gabeko egunaren aurretik

MUGIKORTASUNA Asteasutik eta Ikaztegiatik abiatuta txirrindulari ugari bildu ziren Anoetan 4

Joxe Gabirondo nagusi Nazioarteko Sega Txapelketan

GAZTELU Alemanian jokatu da Txapelketa eta sega handien proban lortu du garaipena 3

Txotxongiloek emango diote gaur hasiera sei eguneko Kultur Asteari

BIDEGOIAN Bidanien eta Goiatzen ere ekitaldi ugari antolatu dituzte 3



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Uzturre Asistentzia Gunea martxan

Gizartea » Atzo hasi ziren lehendabiziko egoiliarrek sartzen zentro berrira; geratzen den eraikina otsailean martxan izatea espero dute.

ERREDAKZIOA

Uzturre izenarekin bataiatu duten Asistentzia Gune berriak zabalik ditu atek dagoeneko, eta lehendabiziko egoiliarrez betetzen hasi da. Hain zuzen ere, atzo bertaratu ziren San Kosme eta San Damian zentroko egoiliar batzuk, eta gaur egingo dute gainerakoek. Zentro horretako eguneko zentrorra joaten zirenak ere aurrerantzean Tolosako Alondegi zaharrean kokaturikoa joango dira. Mendekotasuna daukaten adinekoak, gaixo mentalak eta eguneko zentroko erabiltzaileak pixkanaka sartuz joango dira, eta abendu aldera zentroa beteta egotea espero dute.

177 egoiliarrentzat lekua

23,3 milioi euroko inbertsioa izan du zentroak eta 177 egoiliarrentzat du lekua. Horietatik, 77 plaza mendekotasun egoeran dauden adineko egoiliarrentzat izango dira, 16 adineko psikogeriatricoentzako, 24 egoiliar psikosozialentzako eta 60 eguneko zentrokoentzako.

Asistentzia Gune arduradunek azaltzen dutenez, erosotasun eta funtzionaltasun ikuspegitik zein diseinu aldetik ere, «gela guztiak daude ekipamendu eta altzari modernoenez jantzirik». Horrez gain, erabat egokiturik dagoen bainugelarako sarbidea logelatik bertatik izango dute, «egoiliarrentzako eroso delariko». Bestalde, logela gehienak pertsona bakarrentzako dira, baina, badira ezkontide, bikote edo etxekoren batekin partekatuzko birezkoak ere.

Gipuzkoan «bakarra»

Psikogeriatría eta psikosozialitate bereziak ditu zentroak, eta hornitu duten «azken teknologia-ko ekipamenduei esker» Gipuzko-

an gisa horretako «bakarra» dela esan daiteke.

Errehabilitazio gunea ere nabarmandu nahi izan dute arduradunek. 56 metro koadrotik gora ditu, eta «egoiliarren ariketak errazteko azken belaunaldiko makinaz» osatu dute. Beste hainbat zerbitzu ere eskainiko dizkie zentroak erabiltzaileei, hala nola, ile-apaindegia edota podologia, eta aurki jarriko dituzte abian. Hala ere, aisialdirako gune berria izatea ere ahalbidetu du, izan ere, eraikinarean aurrealdean 6.000 m²ko plaza sortu dute.

Bestalde, zentroaren jasangarri izatera ere azpimarratu nahi izan dute, «bere funtzionamendurako baliabide naturalak erabiltzen baititu, behar duen energiaren zati bat, esaterako, berriztagarria delarik».

Beste eraikina otsailerako

Bertako langile eta lehendabiziko egoiliarrez gain, Udaleko arduradunak eta teknikariak eta Aldundiko ordezkariak ere izan ziren atzo zentro berrian. Jokin Bildarraz Tolosako alkateak «urte askoko lanaren ondorio» dela zentroa azaldu zuen, eta Aldundiaren babesa eskertu. Egoiliarren sendiek eta herrian hirugarren adinarekin lotura duten elkarteetako kideek dagoeneko bisitatu dute zentroa, eta laster nahi duen orok ere ikusi ahal duela esan zuen Bildarraztek, «horretarako bereziki egun bat jarriko baita».

Zentro berria erabiltzen hasi dira, beraz, baina proiektua bere osotasunean ez dagoela amaiturik esan daiteke, etxebizitza tutelatuen eraikina geratzen baita. Datoren urteko otsailerako espero dute obrak amaituta egotea.



Goian, ordezkariak logela bat ikusten. Erdian, egoiliarrek eguneko zentroan. Behean, errehabilitazio gunea. I.T.

» DATUAK

- **Azpiegitura.** Adinekoentzako Uzturre Asistentzia Gunea.
- **Inbertsioa.** 23,3 milioi euro.
- **Erabiltzaileak.** Mendekotasuna daukaten adinekoak, gaixo mentalak eta eguneko zentroko erabiltzaileak.
- **Plazak guztira.** 177.
- **Plazak zentroan.** 117.
- 77 mendekotasun egoeran dauden adineko egoiliarrentzako.
- 16 psikogeriatrico unitateko adinekoentzako.
- 24 plaza gaixo psikosozialentzako.
- **Plazak eguneko zentroan.** 60.
- **Etxebizitza tutelatua.** Geratzen den eraikinean etxebizitza tutelatua eta guztientzako espazioak egongo dira, taberna, adibidez. Otsailean amaiturik egotea espero dute.



Pisu tutelatuen eraikina obretan. I.T.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Sardina eta txakolin artean, gustura

ALEGIA • Kalebeherako festei bukaera eman zieten auzokideek igandean. Lau egunetan zehar ekitaldiak izan dituzte eta parte hartze zabala izan dute. Besteak beste, igandean bertan txakolina eta sardina dastatzeko aukera izan zuten herritarrek. Eta argazkietan ikusten den modura, arrakasta izan zuen ekitaldiak, jende ugari joan baitzen, eguraldia lagun, Kalabehera aldera. TXARLI GESTERA

Gaur hasi eta igandera arte, egunero ekitaldiak izango ditu Kultur Asteak

Bidegoian » Haurrei zuzendutako hainbat ekitaldi izango dira eta jai giroan bukatuko da Kultur Astea Goiatzen.

ERREDAKZIOA

Bidegoiango Kultur Asteari gaur ekingo diote. Datorren igandera arte hainbat ekitaldi izango dira egunero: txotxongilo eta antzerki saioak, argazki emanaldiak, haurrentzat jolasak, patata tortilla lehiaketa...

Izan ere, bi lehiaketa izango dira Kultur Astearen baitan. Patata tortilla lehiaketa ostiralean izango da eta bertan parte hartzeko bihar da azken eguna izena emateko. Horretarako udaletxera deitu behar da. Egun berean, hau da, ostiralean, parte-hartzaileek 19:00ak eta 19:30ak bitartean agertu beharko dute.

Bestea marrazki lehiaketa izango da. Hori larunbatean egingo dute. Oinarriak egun berean banatuko dituzte antolatzaiak. Bost

talde izango dira: 5 urte artekoa; LH 1 eta 2; LH 3 eta 4; LH 5 eta 6; eta adin horretatik gorakoa. Saria taldeko lehenengo bientzat izango da.

Bestalde, igandean jai giroa izango da Goiatzen. Goiz guztian zehar sagardogileen, talogileen eta abarren erakusketa izango da. Azoka ere izango da eta hainbat produkturen erakusketa egiteaz gain, erosteko aukera ere egongo da. Sagardo eta txakolin dastatzea eta sardina jatea ere ez da faltako Kultur Astearen azken egunean.

» EGITARAUA

Irailak 21, gaur

■ **16:30.** Lanku Taldearen *Altxorren bila* txotxongilo emanaldia ikusi ahaliko da Bidaniako pilotalekuan.

■ **21:00.** Goiatz eta Bidaniako jaietako argazki emanaldia Iñaki Lopezegiren eskutik. Balioaitzeko gelan.

Irailak 22, bihar

■ **17:00.** Bidanien haurrentzat



Orain bi urteko marrazki lehiaketaren memento bat. A. IMAZ

ekintzak antolatuko dituzte herriko gazteek.

Irailak 23, etzi

■ **21:00.** Josune Lazkanoren esku-tako *Munduan Zehar* bideo emanaldia Txinkorta Ikastetxean.

Irailak 24, ostirala

■ **19:00.** Patata tortilla lehiaketa Bidaniako frontoian. Trikitixa ikasle-egun giroa alaituko dute.

Irailak 25, larunbata

■ **15:00.** Bidaniako frontoian marrazki lehiaketa. Oinarriak egun berean banatuko dira.

■ **17:00.** Zurrumuru Antzerki Taldearen *Pantxika Txinparta, ederra zalaparta* antzezlan. Ondoren txokolatada.

Irailak 26, igandea

■ Goiz guztian zehar Goiazko plazan erakusketa, azoka eta jaiak.

Pilates eta eskulan ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

Ikaztegieta » Ikastaroetan interesa duenak izena hilaren 23a baino lehen eman behar du udaletxean bertan.

ERREDAKZIOA

Ikaztegiatiko Udalak jakinarazi duenez, bi ikastaro martxan jarzuko aukera daude: pilates eta eskulanak. Horretarako taldeak osatu egun behar dira eta izena emate-

ko azken eguna hilaren 23a da. 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu behar da. Herritar batzuen eskariz jarri da Udala pilateseko irakasle batekin harremanetan. 8-10 laguneko taldea osatu beharko litzateke aurrera ateratzeko. Urriari hasi eta ekaina amaiera bitarte izango litzateke, astean bi ordutaz. Adin guztietarako balio du jarduera horrekin adineko, heldu edota gazte.

Pilatesen izena emateko bi aukera daude: astearte eta ostegunetan 09:15etik 10:15era, eta asteaz-

ken eta ostiraletan 20:00etatik 21:00etara. Gutxi gorabehera hilean 39 euro ordaindu behar dira 8 lagun izanez gero eta 31 euro 10 lagun izanez gero. Taldea osatzen bada, izena eman dutenekin bilera egingo litzateke.

Eskulan aukera zabalik

Eskulanen ikastaroari dagokionez, eskulanak ematen ari izan den neska batek egin dio eskaintza Udalarri herrian ikastaroa antolatzeko. Urte osoa, hilabete edota

hiru hilabetekoa izan daiteke.

Aukera zabalik eskaintzen du: dekorazioa egurrean, zetan, kristalean edo telan margotu, era guztietako egur edo zeramikaren zaharberritzea, lore lehorren konposaketa, testura ezberdinekin koadroak margotu, makramea, bisuteria, portzelana erusiarra.....

Horrelako zerbait egiteko gogoia dutenek, udaletxean izena eman beharko dute, esan bezala, irailaren 23a baino lehen. 10 laguneko taldea osatzea komeniko dela azaltzen dute Udaletik. Astean bi ordutaz izango lirateke.

Taldea osatuz gero, izena eman dutenekin bilera egingo litzateke, epea, eguna, ordua eta kostua zehazteko.

Laburrak

Kultur Astea antolatzeko lehenengo bilera, gaur

AMEZKETA • Kultur Astea antolatzeko bilerekin hasiko dira Amezketa. Horrela, gaur bertan egingo dute lehenengo bilera, 20:30ean gela balioaitzidunear.

Ezohiko bilkura egingo dute, etzi, 20:30ean

AMEZKETA • Udaletzeko pleno aretoa etzi, 20:30ean, ezohiko bilkura egingo da. Besteak beste ondorengo gaiak aztertuko dituzte bilera: alkatezaren ebazpenen berri ematea; Udal Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen 1. Aldaketaren eranskina osagarriaren onarpena; Papel Aralar S.A.k aurkeztutako xehetasun irkerketaren haserako onarpena; alkateen ituna (CO2 jaitzi %20ean 2010 urterako); eta batzorde informazioa.

60 urtetik gorakoentzako bidaia hilaren 26an

AMEZKETA • Kultura Batzordeak 60 urtetik gorako herritarrentzat bidaia antolatu du hilaren 26rako. Ormaiztegi, Azpeitia eta Zarautz bisitatuko dituzte. Lehentasuna 60 urtetik gorakoek izango dute, baina autobusa betetzen ez bada, gainontzeko herritarrek ere joateko aukera izango dute. Gaur dute eguna 60 urte gorakoek izena emateko. Bihar, berriz, 60 urtetik beherakoek. Pertsonako 27 euro ordaindu behar dira.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Ingeles irakaslea behar da arratsaldetan lan egiteko. Interesatuak deitu 943 67 24 48 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira 634 45 9110.

Mugikortasun Astean, bihar autorik gabeko eguna izango da

Mugikortasuna » Igandean, Bizikleta Bira izan zen. Asteasutik eta Ikaztegietatik abiatuta, guztiak Anoetan elkartu ziren.

ERREDAKZIOA

Europako Mugikortasun Astea hilaren 16tik hilaren 22a bitartean ospatzen ari da. Hori dela eta, besteak beste, asteburuan bi ekitaldi nagusi izan dira gurean. *Zentzuz Mugitu eta hobeto bizi!* lelopean, larunbatean, Villabonan Bigarren Eskuko Azoka egin zen eta igandean, Bizikleta Bira.

Bizikleta Birako parte hartzaile guztiak Anoetako plazan elkartu ziren. Batzuk Asteasutik abitu ziren eta besteak Ikaztegietatik. Bidegorrian barrena, tarteko herrietan ere, txirrindulariak gehitzen joan ostean, Anoetara iritsi ziren. Eguraldi ezin hobea izan zuten bizikleta biran parte hartu zutenek.

Anoetan hamaiketako ederra izan zuten zain. Sabela bete eta kontu batzuk esan ostean, berriz ere, etxerako buelta egin behar izan zuten. Parte hartzaile guztien artean, txirrindu denda batean gastatzeko bonu bat zozketatu zuten. Honen helburu nagusia garrario mota iraunkorren aldeko sentibilizazioa bultzatzea da.

Autorik gabeko eguna

Bihar autorik gabeko eguna izanik, gaur Tolosan, Usabalgo industrialera joango dira. Bertako langileak hiriko autobusa hartzera gonbidatuko dituzte, euskarri informatzaileak banatuz, autobusaren ordutegiarekin. Halaber, langileei autobusa ez erabiltzearen arrazioen inguruan galdetuko diete. Bestalde, batxilergoko ikasleen laguntzarekin herriko aparkaleku nagusietan autoa erabiltzen duten guztiak autobusa erabiltzera gonbidatuko dituzte.

Tolosako Udalak, herritarrei zuzendutako aholkuen bilduma bidaliko die oinez eta bizikletaz ibiltzearen onurak goraiatuz. Paper kontsumoa gutxitu nahian, era digitalean zabalduko dute.

Bihar autorik gabeko eguna dela gogoraraziko dute, baina urtean behin autoa etxean uztearekin ez da nahikoa. Garraio publikoa, bizikleta edota oinak gehiago erabiltzea izango litzateke aurrera pausu bat. Edota beste aukeretatik bat autoa partekatzea litzateke.



Txirrindulariak Anoetako plazan elkartu ziren. Hamaiketako izan zuten indarrak berreskuratzeko. SARA GOMEZ

Sei lagun atxilotu dituzte 500 marihuana landare izateagatik

Zizurkil » Ertzaintzak, 19 eta 25 urte bitarteko gazteak atxilotu zituen. Marihuana landare izatea egotzi diote.

ERREDAKZIOA

Larunbatean, sei mutil gazte atxilotu zituen Ertzaintzak, bi furgonetetan, marihuana landareak garraiatzen ari zirela. Adunako Urta-ki industrigunean ikusi zituzten.

Ertzaintzaren operazio hau, ikerkuntza lanen ondorio izan da. Ertzaintza, Zizurkil, Aduna eta Andoain artean, marihuana landaketa bat egon zitekeenaren susmoekin lanean zebilen. Azkenik, asteburuan egindako operazioarekin, bi furgoneta geldiarazi zituzten.

Inguruetako industrigune ezberdinetan, zaintza lanak egiten ari ziren eta larunbat goizaldeko hirurak aldera, industrigunetik pasa zen Ertzaintzaren patruila batek, bi furgoneta susmagarri ikusi zituen. Furgoneta bat geldiaraztean, marihuana landareak beteta zeramatela konturatu ziren. Bigarren furgoneta, Andoaingo Bazkardoko biribilgunean geratu zuten. Furgoneta bakoitzean hiru gazte atxilotu zituzten.

Era berean eta honekin lotuta, Lakuako Barne Sailak jakitera eman duenez, tamaina ezberdinetako 500 marihuana landare aurkitu zituzten Zizurkilgo landaketa batean.

Atxilotutako sei gazteak, hurrengo orduetan pasako dira epai-learen aurretik.

Ertzaintzak gizonezko baten gorpua aurkitu du Andoaingo ubide batean

Berrobi » DNA frogen emaitzen zain, gorpua desagerturik dagoen berrobittarra izan daiteke.

ERREDAKZIOA

Bilaketa lanetan zebilela, iragan ostiralean, gizonezko baten gorpua aurkitu zuen Ertzaintzak Andoaingo ubide batean.

Hilaren 10etik desagertuta dagoen Berrobiko 77 urteko bizilaguna izan daitekeela uste baldin badute ere, aurkitutako gorpuari DNA frogak egingo dizkiote lehenik.

Emaitza horiek jaso ostean, gorpua berrobittarra den edo ez jakinaraziko dute ikerketaren duradunek.

lezo BTT 2010 09/26

BERROBI
Bilakaeta mota: 25 km
Bilakaeta luze: 32 km

ITZULBIDEA
Auzoak
- Oñati (hasi)
100 kilometroko sariak
Gazte, inberratuak, Aste Hone 2010
Mugikortasun Astearen barnean dagoen 25ko
bilakaeraren parte bezala kontatzen da.

www.lezo.net

Eguzken berria
- Gurutzte Sanjuaren Plaza
30.000tik hasi

Pedagogia: 11 €
Pedagogia gabekoak: 15 € (ez dagoen lehen)
Indarra: 80-100an Gurutzte Sanjuaren Plazan
Martxoak 14: 14.00an
Informazioa eta bilakaeta: www.lezo.net

kamasaik
partehartzaileentzako
ala sari zozketa
izateko bal bari!

lezo.net

berria, MIZAN, DYA MI, and other logos at the bottom.

Erromatik Santiagora oinez

Gizartea » Jose Mari Otermin amezketarra eta Anjel Mari Oartzabal alegiara joan zen astean abiatu ziren.

JOXEMI SAIZAR

Xacobeo urte honetan jende asko joango da Santiagora oinez, bizikletaz edo beste modu batez.

Horietako askok azken ehun kilometroak egingo dituzte, Compostelana agiria lortzeko eskatzen dutena. Beste batzuk Donibane Garazitik edo Orreagatik abiatuta 750-800 km egingo dituzte. Baina distantzia hori hirukoiztuko duten gutxi izango dira, Erromatik abiatuta. Eskualdeko bilagun abiatu ziren joan zen astean asmo horrekin.

Eskarmentu handikoak

Jose Mari Otermin amezketarra eta Anjel Mari Oartzabal alegiara dira albiste honetako bi protagonistak.

Amezketarra euskal irrati publikoaren bultzatzaileetako eta urte askotan EITBko buruetako izan zen eta azken urte hauetan Amez-

ketari eta Fernando Amezketarri buruzko liburuak argitaratu ditu. Iaz jubilatua zenean egin zuen Donejakue bidea bide frantsesetik eta gero kostatik.

Oterminek, printzipioz, Frantzia arteko mugarainoko bidea egingo du

Oartzabalek, aldiz, Santiagoraino jarraian joateko asmoa du; hiru hilabete beharko ditu

Alegiara joan zen ekainean el-karrizketatu genuen HITZAN, Alegiatik Santiagora joan-etorria oinez bi hilabetez egin zuela eta, urtariletik martxora.

Oterminek Erromatik Santiagora joateko proposamena egin zio-la aurreratu zigun orduan, baina erabakia hartu gabe zuenez ez genuen horren berririk eman.

Orain bai, erabakia hartu eta martxan jarri dute.

Irailaren 15ean abiatu ziren Otermin eta Oartzabal Erromatik



Bidaiaren bi protagonistak: Jose Mari Otermin amezketarra eta Anjel Mari Oartzabal alegiara. JUAN CARLOS RUIZ-ARGAZKI PRESS/JOXEMI SAIZAR

oinez. Joan zen ostiralean hitz egin zuen Oterminek Euskadi Irratiko *Mezularia* programan zuzenean Italiako herri batetik, lehen egunetako esperientzia azalduz. «Konpromisoak eta familia direla eta», oraingoz Frantzia arteko mugarainoko zatia egiteko asmoa du Oterminek. Geroago jarraitzeko asmotan. Oartzabalek berriz, Santiagoraino jarraian joateko asmoa du, «ezer ez bada gertatzen».

Hiru hilabete beharko dituela kalkulatu du, hau da, Gabonetarako iritsiko dela. Aurrekoan egin zuen bezala, etxeraino oinez itzuliz gero, beste hilabete bat gehiago beharko du, gutxi gorabehera.

1870eko istorioa

Aurten jende asko dabil Donejakue bidea, baina Erromatik abiatuta ez: «Lau katu gabiltza» esan zuen Oterminek. Horrelako ibilaldi luze eta bereziaren arrazoia ere azaldu zuen: Amezketako emakume batek, 1870 urtean, Amezketatik Erromara joan-etorria egin zuen oinez, «ez xentimorik, ez hizkuntzarik, ez arroparik izan gabe, eskaletzan», dirudienez pekatu baten barkamena eskatzera edo. Haren adibidea hartuta abiatu dira bigizonak.

Euskara ikasteko diru laguntzak

Euskara » Irura eta Anoetako udalek eskainiko dituzte; taldea osatzen bada ikastaroak herrian bertan izango dira.

jo behar delarik. Ikastaroak «euskara ikasi edo hobeto nahi duten helduei» zuzendutakoak dira, eta taldea sortzen bada ikastaroa herrian bertan izango da.

Urriaren amaiteko da izena emateko epea

Aipatu moduan izena emateko Anoeta eta Irurako udal txetxetara jo behar da 09:00etatik 13:00etara.

Anoetan urriaren 7an amaiteko da epea eta Iruran aldiz, urriaren 8an.

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako udalek argitu dutenez, euskara ikastaroak egin ahal izateko diru laguntzak emango dituzte, horretarako udal txetxetako Euskara zerbitzueta

Laburrak

Nagore Franco podologoa gaur, 15:00etan

ANOETA » Anoetako Alkartasun Biltokiko kideek argitu dutenez, Nagore Franco podologoa izango da bertan gaur, 15:00etatik aurrera. Podologoarekin egoteko izena eman duten guztiak dute hitzordua, hortaz, gaur Biltokian.

Loatzo Musika Eskolan izena emateko aukera

KULTURA » Loatzo Musika Eskolako arduradunek 2010-2011 ikasturterako izena emateko aukera dagoela gogoratu nahi izan dute. Epea irailaren 30ean amaiteko da. Izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko 943-69 26 19 telefono zenbakira deitu daitezke.



Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso
ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.



Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:
samsung LE32C450

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, 600 MHz prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiak lotzeko.

Urriaren 15ean,
telebista hau zotz egingo dugu
BERRIAren harpidedunen artean,
Elektarren eskutik.



elektra
www.elektragaliak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info **Aukerazazu, BIZIEUSKARAZ, berria**

E Emaitzak

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

KADETEAK, LEHEN MAILA

Aurrera-Saiaz	11
Zazpi Iturri	22

KADETEAK, BIGARREN MAILA

Aurrera-Saiaz	22
Aldezaharra2	9

JUBENILAK, BANAKA

Perez Albeniz (A-S)	7
Zazpi Iturri	22

JUBENILAK, BIGARREN MAILA

Zelaia-Elustondo (A-S)	22
Hondarribia2	2

SENIORRAK, BANAKA

Arratibel (Aurrera-Saiaz)	22
Aniztasuna	3

Perez (Aurrera-Saiaz)	11
Antigua	22

SENIORRAK, BINAKA

Mugika-Galarraga (A-Saiaz)	22
Usurbil	3

Zabaleta-Zinkunegi (A-Saiaz)	22
Mundarro	8

I. Urbietia-Labaka (A-Saiaz)	13
Antigua	22

X. Urbietia-Biain (A-Saiaz)	22
Intza	16

Quina-Otaegi (A-Saiaz)	20
Beloki	20

Narbarte-Telletxea (A-Saiaz)	22
Aurrera-Saiaz3	9

Apezetxea-Senperena (A-Saiaz)	22
Bergara	8

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

BIGARREN JARDUNALDIA

Tolosa CF	1
Oiartzun	1

SAILKAPENA

1. Trintxerpe (6 puntu); 2. Tolosa (4 puntu); 3. Oiartzun (4 puntu).

ERREGIONAL PREFERENTEA

BIGARREN JARDUNALDIA

Zestoa	2
Tolosa CF 'B'	0

Lazkao	4
Intxurre KKE	1

SAILKAPENA

1. Zestoa (6 puntu); 2. Mutriku (4 puntu); 3. Mondragon (4 puntu);

Tolosa CF 'B' (3 puntu); 8. Intxurre KKE (3 puntu).

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

LEHEN JARDUNALDIA

Lauburu KE	5
Sestao	2

SAILKAPENA

1. Rompiente (3 puntu); 2. Zierbana (3 puntu); 3. Castro Urdiales (3 puntu); 4. Lauburu (3 puntu).



Joxe Gabirondo segalari gazteluarra. HITZA

Joxe Gabirondo gazteluarrak Euskal Herriaren izena mailarik altuenean kokatu du

Sega » Alemanian Nazioarteko Sega Txapelketa jokatu zen larunbatean; Jokin Garmendia 5. gelditu zen.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriaren eta Gazteluren ordezkaririk bikaina dela erakusten jarraitzen du Joxe Gabirondo segalariak. Larunbatean, Alemanian Nazioarteko Sega Txapelketa jokatu zen eta gazteluarrak emaitza

bikainak lortu zituen. Segahandien mailan, Joxe Gabirondok lehen postua eskuratu zuen, «denbora bikaina eginez». Bigarren postuan Schmidt sailkatu zen eta, hirugarren, berriz, Heinz. Gabirondok lehen postua eskuratzear gain, lehenengo hamar postuetan beste hiru euskal segalari ere sailkatu ziren.

Taldekako lehia ere, Euskal Herriatik joandakoek, lan ona egin zuten. Gabirondok, Mitxelenak eta Agirrezabalak osatutako taldeak bigarren postua eskuratu zuen,

alemaniarren atzetik. Segatik azkenik, zazpigarren postua lortu zuen gazteluarrak.

Alemanian lortutako emaitzeekin «oso pozik» agertu da Joxe Gabirondo. Nazioarteko probetan, segahandiek orain arteko posturik onena Erasun zizurkildarrak lortu zuen, laugarren eginaz. Larunbatean gazteluarrak Euskal Herria mailarik gorenera eraman zuen.

Amaitzeko, beteroenen mailan Joakin Garmendia anoetarrak bosgarren postua eskuratu zuen.



Intxurre mailaz igo zen eta denboraldi berria bi partida jokatu dituzte. P. R.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Edurne Pasabanen bizipenak enpresetara bideratu nahian

Tolosa » Urriaren Ekintzaileen Foru Nazionala antolatu dute Barakaldoko BEC-en; Pasaban bertara gonbidatu dute.

ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban mendigoizale tolosarrak, Alberto Iñurategirekin batera, Eusko Jaurlaritzak antolatu duen Ekintzaileen Foru Nazionalan hartuko du parte. *Emprende 2010* izena jarri dioten batzarra urriaren 18an eta 19an burutuko da Barakaldoko BEC-en. Edurne Pasabanek bere bizipenak kontatuko ditu.

Bertan ordezkari publiko eta pribatuak elkartuko dira, ekintzailetasuna enpresetara nola bideratu aztertzeko asmoz. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko «ekintzaile» guztiak bertan elkartuko direla azaldu dute Eusko Jaurlaritzako Industria Sailetik.

Jose Antonio Alustiza aresoarra seigarren gelditu da Ttikirekin

ERREDAKZIOA

Marzel Hualde Aldudekoak eta Tiko bere artzain txakurrak irabazi dute 44. Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa. Herenegun, eguraldi eta giro onean ospatu zen lehia Atxondoko Axpe auzoko Elizalden. Iparraldera doan bigarren txapela lortu zuten Hualdek eta Tikok.

Jose Antonio Alustiza eta Ttiki seigarren

Bigarren postua Gipuzkoara joan zen. Azkar txakurrak lan bikaina egin zuen eta Juan Jose Arrizabalaga gustura gelditu zen lortutako emaitzarekin. Aurreikuspenak kontuan hartuta, hain gustura gelditu ez zena Jose Antonio Alustiza aresoarra izan zen. Ttiki txakuraren Txapelketa irabazteko aukerak zituen, baina azkenean seigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Ilusioz beteta ekingo dio denboraldiari Laskorain Ikastolak

Areto futbol » Aldaketa batzuk egon dira taldean; lehen jardunaldia hilaren 25ean jokatu dute Andoainean.



Saldias Laskorainera itzuli da. HITZA

ERREDAKZIOA

Abuztuaren 23an ipini zen martxan 2010-2011 kirol urte honetan elastika horia defendatuko duen Ikastolaren armada. Joan den denboraldian bigarren postu bikain bat erdietsi eta azkenengo jardunaldia arte txapelketaren gailurrerengatik borrokatzen jardun eta gero, merezitako oporrak amaitu eta 5 astetako aurrendenboraldi astun bati aurre egin ondoren, datorren hilaren 25ean emanngo dio taldeak hasiera denboraldi berriari.

Blokearen oinarria joan den urtekoa izango den arren, aldaketa txikiak gertatu dira zenbait lerroan eta norgehiagoketan zehar emango den errendimenduari bu-

ruz ziurgabetasunak urtero emagatik, taldeak baikortasun osoa erakusteko argudio guztiak ditu iraganean izan diren traba eta oztopo guztiak talde lan bikain baten ondorioz gaindituak izan baitira.

Hasteko, aulkitxoak ikusiko du aldakuntzarik esanguratsuen, Jorge Alonsoren laguntzaile izandako Javi Mujikak, itsasontziaren buruzagi moduan jardungo du. Bere alboan, joan den urtean ezinbesteko papera bete zuten

Imanol prestatzaile fisikoa eta Javi delegatua izango dira beste behingoz.

Jokalariei gora-beherak

Jokalariei dagokienez, Andoni Saldias beteranoaren itzulera eta Zabala eta Landerren bajak eman dira. Saldiasek, urtebetez Elgoibarko Concepto Createch botere-tsuan jokatu eta gero, bere itzulera sinatu du taldearen hazkunde prozesuan ahal den neurrian laguntzeko asmotan. Landerrek azken orduko erabaki baten ondorioz Lauburu Ibarraren lerroetan arituko da eta Zabalak, jokatzeari utzi eta filialaren talde teknikoarekin batzeko konprometua hartu du.

Martxan da dagoeneko aurtengo ilusio berria eta aurreikuspenen arabera inoiz baino gogorragoa suposatzen den 30 postutako bidaia laster izango du bere hasiera. Lehengo geltokia, datorren irailaren 25ean Andoaineko Euskalduna taldearen aurka. Abian da dagoeneko Laskorain.



Iraileko azken igande jendetsuak

ASIA » Urtero bezala, aurten ere jendetsua bildu da Ernio eta Zelatunen inguruan, iraileko igande guztietan. Aurtengoa gainera, eguraldia beti lagun izan dute mendizaleek eta azken aukeran, hilaren 26an, eskertuko lukete iragan igandeko giroa. Lehenik Ernio puntara joaten dira mendizaleak eta ondoren Zelatunen igarotzen dute eguna erromerian. ESTI EZEIZA



AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

Kalitatezkoa

EDARIAK

ELIKAGAIK

JANTZIAK

DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

ESKULANGINTZA

400



SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **plaza.com**





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Albiztur.** Udalak herriko haur eta gazteentzako pilota eta dantza ikastaroak antolatu ditu, urriari hasi eta ekaina arte. Pilota ostegunetan 17:30etik 18:30era (15 euro). Dantza asteazkenetan 18:00etatik 19:00etara (30 euro). Izen-ematea, udaletxean.

■ **Amezketeta.** Amezketa Udalak antolatuta, Ormaiztegi, Azpeitia eta Zarautzera irteera egingo dute hilaren 26an. 60 urtetik gorako herritarrek dute lehentasuna, baina autobusa betetzen ez bada gainontzekoek ere joan ahalko dute. Gaur eta bihar (60 urtetik beherakoek) eman ahalko da izena, 27 euro ordainduta.

■ **Tolosa.** Vaya semana antzezlanaren estreinaldia Leidor aretoan, hilaren 24ean, 20:30ean. Sarrerak salgai 20 euroren truke, Leidorren (zinema orduetan) edota Kutxaren kanaletan (Servikutxa, Telekutxa eta www.kutxa.net).

■ **Tolosa.** Hilaren 25erako mendi bizikletako irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak Urbasara. Izen-ematea, elkartearen (Santa Maria 4, 943 67 56 12, 688 69 86 42, www.oargi.org).

■ **Villabona.** Urriaren 3rako Lagran-Palomas-Lagran (Araba) mendi irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (Larrea, 18-B) ostegunetan 20:00etatik 22:00etara edo 649 71 71 82 zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Pirinioetatik Herbehereetara



PIRINIOAK

Irantzu Arratibek argazki hau bidali digu: «Argazkia Gavarnieko zirkoan ateratakoa da. Bertan zegoen glaziar batean. Nahiz eta uztailko argazkia izan, bertako glaziarrek hotz-hotzak zeuden». IRANTZU ARRATIBEL

HERBEHEREAK

Elena Urangak argazki hau bidali du Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Herbeheretako argazki bat bidaltzen dizuet. Leku hau asko gustatu zitzaidan. La Hayako Parlamentua da». ELENA URANGA



argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa

Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

2. Saria

3. Saria

Parte-hartzaileak HITZAko ma...